



AKTEA/15

BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA
(2023-05-23)

Batzarraren izaera:	O hikoa
Deialdia	1. deialdia
Data:	2023-05-23 (Asteartea)
Lekua:	Irakaskintza kalea 14-16 (Gizarte eta Kultura Etxeko batzar gela)
Hasiera-ordua:	08:07
Amaiera-ordua:	08:11
Alkate-Presidentea:	ABAROA CANTUARIENSE ARITZ
Batzordekideak:	PLATAS ARENAZA M. IDOYA LEIZAOLA ZULUETA MAITANE ZUMETA GARRO ALAZNE LEGARRETA ERKIAGA IBON ZUMETA GARRO KEPA
Bertaratu ez direnak:	
Idazkaria:	LEJARRAGA URIARTE JURDANA



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000C8F6E00Y5G3U5O0X9R7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
23/05/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 23/05/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/05/2023
09:40:22

DOCUMENTO: 20230823150

Datea: 23/05/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E7000C8F6E00Y5G3U5O0X9R7



Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2023-05-16 TGB (14)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- 6.1.3 areako 5 eta 6 portaletan eraikitako 20 etxebizitzaren bizigarritasun lizentzia emotea onartzea.
- 4.- Alkartasuna Dantza Taldeagaz 2023. urteko hitzarmena sinatzea onartzea.
- 5.- Bermeoko Arraun Elkarteagaz 2023. urteko hitzarmena sinatzea onartzea.
- 6.- Bermeoko Futbol Taldeagaz 2023. urteko hitzarmena sinatzea onartzea.
- 7.- Alkatetza dekretuen berri emotea.
- 8.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta jarraian deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Eraitza honakoa izan da:

1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2023-05-16 TGB (14)

Bertaratutako batzarkideek 2023ko maiatzaren 16ko 14/2023 akta irakurrita, aho batez onartzea erabaki dute.

Kepa Zumeta batzar gelara sartu da.

2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.

3.- 6.1.3 AREAKO 5 ETA 6 PORTALETAN ERAIKITAKO 20 ETXEBIZITZEN BIZIGARRITASUN LIZENTZIA EMOTEA ONARTZEA.

Xedea



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000C8F6E00Y5G3U5O0X9R7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
23/05/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 23/05/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/05/2023
09:40:22

DOCUMENTO: 20230823150

Data: 23/05/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



6.1.3 areako 5 eta 6 portaletan eraikitako 20 etxebizitzaren bizigarritasun lizentzia.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2021eko apirilaren 13an Tokiko Gobernu Batzarrak 6.1.3 areako 5 eta 6 portaletan 20 etxebizitza eraikitzeko Atxatxin Berri S.Lenpreseari obra lizentzia emotea erabagi eban.

Bigarrena: 2021eko maiatzaren 12an exekuzino proiektua aurkeztu zan.

Hirugarrena: 2021eko abenduaren 10ean Atxatxin Berri S.L. enpreseak 6.1.3 areako 5 eta 6 portaletan 20 etxebizitza eraikitzeko emondako obra lizentzia aldatzea eskatu eban, proiektua 6.1.3 areako 4 portaleko eraikinaren bizigarritasun lizentzian jarritako baldintzetara egokitzeko. Horretarako, 6.1.3 areako 5 eta 6 portalen exekuzio proiektua aldatua aurkezten dabe, eraikigarritasuna murriztuz.

Laugarrena: 2022ko otsailaren 8an Tokiko Gobernu Batzarrak 6.1.3 areako 5 eta 6 portaletan 20 etxebizitza eraikitzeko emondako obra lizentziaren aldaketa onartzea erabagi eban.

Bosgarrena: 2023ko otsailaren 27an Atxatxin Berri S.L. enpreseak 6.1.3 areako 5 eta 6 portaletan eraikitako 20 etxebizitzaren bizigarritasun lizentzia eskatu eban. 2023ko otsailaren 27an, martxoak 2 eta 30ean eta maiatzak 8 eta 11n, dokumentazioa osagarria aurkeztu eban.

Seigarrena: 2023ko maiatzaren 11n udal arkitektoak txostena egin eban.

Zazpigarrena: 2023ko maiatzaren 11n Urigintza Saileko teknikariak txostena eta erabagi proposamena egin ebazan.

Argudioak

Lehenengoa: Udal arkitektoak 2023ko maiatzaren 11n egindako txostenean honako hau aipatzen da:

Eskariari dagokion dokumentazioa aurkeztu da:

1. O bra bukaerako ziurtagiria.
2. O bra amaierako likidazioa (1.298.821,85 €).
3. Memoria eta obra amaierako planoak.
4. Telekomunikazio instalazioa industria ordezkartzan aurkeztu izanaren agiria.
5. Igogailuei buruzko dokumentazioa.
6. Ur hornidurari buruzko dokumentazioa.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000C8F6E00Y5G3U5O0X9R7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
23/05/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 23/05/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/05/2023
09:40:22

DOCUMENTO: 20230823150

Fecha: 23/05/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



7. Instalazio termikoei buruzko informazioa.
8. Instalazio elektrikoei buruzko informazioa.
9. Energia eraginkortasunaren ziurtagiria.
10. Hondakinen kudeaketari dagokion azken txostena.
11. Alta aitortpena hiri ondasunak zergapetzeko.
12. O bra berriaren adierazpena.
13. O brako kalitate kontrolaren liburua.

2023ko maiatzaren 8an egindako ikuskapenean ikusi dut eraikitakoa lizentzia emateko dokumentuekin bat datorrela.

Bigarrena: 6.1.3 areako 5 eta 6 portaletan 20 etxebizitza eraikitzeko obrak amaitu ondoren eta, udal arkitektoak 2023ko maiatzaren 8an egindako aldeko txostena ikusirik, bizigarritasun lizentzia emon daiteke.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak xedatutakori jarraituz, 207 artikuluan aipatutako ekintzak hirigintzako lizentzia behar dabe, besteak beste obren lehenengo erabilpenak.

Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 207 r) eta 210 artikuluek eta Urigintza Diziiplina arautzen dauan ekainaren 23ko 2187/ 1978 Errege Dekretuaren 3 eta 4 artikuluek xedatutakoari jarraituz, espedientearen tramitazioa indarrean dagoan araudiarekin bat dator. Era berean, eskaria bat dator be hirigintza araudiarekin, udal arkitektoak 2023ko otsailaren 7an egindako txostenena aipatzen dan lez.

Hirugarrena: Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 209.2 artikulua eta Toki- administrazioen Oinarriak arautzen dauan 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontutan hartuta, hirigintza lizentziak emoteko eskumena alkatearena da, baina eskumen hori 2022ko ekainaren 16ko 2037. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta dauka.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: 6.1.3 areako 5 eta 6 portaletan eraikitako 20 etxebizitzaren bizigarritasun lizentzia emotea.

BIGARRENA: Obren azken aurrekontua 1.298.821,85 eurokoa da.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000C8F6E00Y5G3U5O0X9R7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
23/05/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 23/05/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/05/2023
09:40:22

DOCUMENTO: 20230823150

Data: 23/05/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



HIRUGARRENA: Hurrengo O soko Bilkuran erabagi honen barri emotea.

4.- ALKARTASUNA DANTZA TALDEAGAZ 2023. URTEKO HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.

Xedea

Alkartasuna dantza taldeko 2023 urteko plangintza aurrera erodateko, alkartasuna dantza taldeagaz zuzeneko dirulaguntza bideratzeko hitzarmena sinatzea eta gastua onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bermeoko Udalak, 2022ko abenduaren 19an izandako O soko Bilkuran, udalak eskaintzen dauzan dirulaguntzen 2023-2025 urteetarako Plangintza Estrategikoa onartu dau.

Bigarrena: 2023 urteko aurrekontuan, Alkartasuna Dantza Taldea elkartearen aldeko dirulaguntza nominatiboa jasotzen da, 3.3. ardatzaren barruan (Bermeo bizia). Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 28.1 artikulua arabera, dirulaguntza nominatiboak bideratzeko hitzarmena sinatu behar da.

Hirugarrena: Alkartasuna dantza taldearen programagaz lortu nahi diran helburuak, gure herriko kultura, nortasuna eta jaien zabalkundea sustatzea; Euskal folklorea eta kultura zabaltzeko izaera publikoko ekintzen garapena eta presentzia lortzea eta sorkuntza eta zabalkunde artistikoa bultzatzea dira.

Laugarrena: 2023ko martxoaren 30ean, Kulturako teknikariak justifikatze memoria egin dau.

Bosgarrena: 2023ko apirilaren 14an, AOTko idazkariak 2023/26 txosten juridikoa egin dau.

Seigarrena: 2023ko maiatzaren 8an, Kontuhartzaile andreak 86/2023 aldeko fiskalizazio txostena egin dau.

Argudioak

Lehenengoa: Gastuak, beharrezko atxekipena dauka (RC 2023/000284)

Bigarrena: Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dauzen 7/1985 Legearen 5. artikulua, Toki Erregimenaren Testu Bateratua onartzen dauen 781/1986 EDLaren 111. artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Administratibo Orokorra onartzen dauen 39/2015 Legearen 86. artikulua, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, bere



28.1 artikuluan, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak bere 6. artikuluan eta Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen dauen 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengokoetan xedatutakoak hartu dira kontutan.

Hirugarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legearen 21.1. artikulua f) eta s) ataletan jasotakoaren arabera, alkateari jagoko, baina 2022ko ekainaren 16ko 2037. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Alkartasuna Dantza taldearen 2023 urteko plangintza aurrera erorateko, Alkartasuna Dantza Taldeagaz hitzarmena sinatzea onartzea.

BIGARRENA: aurrekontuko 00400-33410-481.01.06 partida ekonomikoaren pentzura, Alkartasuna Dantza Taldeari 10.500 €-ko gastua onartzea eta esleitzea (AD), hitzarmenean agertzen dan programako gastuentzat.

HIRUGARRENA: Ordaintzeko modua honakoa izango da: hitzarmena sinatu ondoren, zenbatekoaren %80a, hau da, 8.400 € eta %20a, hau da, 2.100 €, dirulaguntza behar dan moduan justifikatu ondoren.

LAUGARRENA: Euskerearen ordenantzeak xedatzen dauzan kultura, kirol, aisialdi alkarte, musika talde eta bestelakoei dirulaguntzak emoteko baldintzak bete behar dauz diru-laguntzearen jasotzaileak.

BOSGARRENA: Interesdunari erabagiaren barri emotea, hitzarmena sinatu daian.

SEIGARRENA: Erabagi honen barri Idazkaritzari, Ekonomia, Kontabilidadeari eta Diruzaintzari jakinarazotea.

ZAZPIGARRENA: Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzeko agindua emotea Kultura eta Hezkuntza Sailari.

ZORTZIGARRENA: Hurrengo O soko Bilkurean erabagi honen barri emotea.

5.- BERMEOKO ARRAUN ELKARTEAGAZ 2023. URTEKO HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.

Xedea

Arraun elkartearekin 2023. urteko hitzarmena sinatzea eta dagokion gastua



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000C8F6E00Y5G3U5O0X9R7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
23/05/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 23/05/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/05/2023
09:40:22

DOCUMENTO: 20230823150

Data: 23/05/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bermeoko Udalaren 2023. urterako Aurrekontuetan, Arraun Elkartearen aldeko dirulaguntza nominatiboa jasotzen dau.

Bigarrena: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 28. artikulua arabera, dirulaguntza biderateko hitzarmena sinatu behar da.

Hirugarrena: Hitzarmenaren helburua, arraun jarduerak bultzatu eta babestea da Bermeoko udalerriko identitateagaz oso modu estuan lotuta dagoen kirola dalako.

Laugarrena: 2023ko apirilaren 21ean, Kirol Saileko teknikariak justifikatze memoria emon dau.

Bosgarrena: 2023ko apirilaren 25ean, Idazkaritzako teknikariak txosten juridikoa emon dau.

Seigarrena: 2023ko maiatzaren 11n, Kontuhartzaileak aldeko txostena emon dau.

Argudioak

Lehenengoa: Bermeoko Udalak 2023ko aurrekontuetan Arraun Elkartearen aldeko dirulaguntza nominatiboa jaso dau eta elkarte honeguz hitzarmena egiteko proposamena.

Bigarrena: Finantzatuko diren gastuak formazioa, baliabide materialen hornikuntza eta giza baliabideak, federazioen kuotak, beharrezkoak diren kudeaketa gastuak, garraioak, elkarteko ohiko ekintzak, arraunaren difusioa eta sustapena egiteko jarduerak eta programak.

Hirugarrena: Gastuak beharrezko atxikipena dauka RC 2023/504.

Laugarrena: Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legearen 5. artikulua, Toki Errejimenaren Testu Bateratua onartzen dauan 781/1986 EDLaren 111. artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Adminitratibo Orokorra onartzen dauan 39/2015 Legearen 86. artikulua, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, bere 28.1 artikulua, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak bere 6. artikulua eta Sektore Publikoaren Errejimen Juridikoa arautzen dauan 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengokoak hartu dira kontutan.

Bosgarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legearen 21.1. artikulua f) eta s) ataletan jasotakoaren arabera, alkateari jagoko, baina 2022ko martxoaren 7ko 703. zenbakidun Alkatetza



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000C8F6E00Y5G3U5O0X9R7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 23/05/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 23/05/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/05/2023 09:40:22

DOCUMENTO: 20230823150

Fecha: 23/05/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Bermeoko Arraun Elkarteagaz 2023. urteko hitzarmena sinatzea onartzea eta hitzarmenean jasotzen den 1go zatiaren ADOa egitea, hau da, % 75a – 33.600 €.

BIGARRENA: Interesdunari erabagiaren barri emotea, hitzarmena sinatu daien.

HIRUGARRENA: Hitzarmen honen publizitatea Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzeko agindua emotea Kirol Sailari.

LAUGARRENA: Hitzarmen honen publizitatea Bermeoko Udalaren webgunean txertatzeko agindua emotea ATB sailari.

BOSGARRENA: Hurrengo 0 soko Bilkurean erabagi honen barri emotea.

6.- BERMEOKO FUTBOL TALDEAGAZ 2023. URTEKO HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.

Xedea

Futbol taldearekin 2023. urteko hitzarmena sinatzea eta dagokion gastua onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bermeoko Udalaren 2023. urterako Aurrekontuetan, Futbol Taldearen aldeko dirulaguntza nominatiboa jasotzen dau.

Bigarrena: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 28. artikularen arabera, dirulaguntza biderateko hitzarmena sinatu behar da.

Hirugarrena: Hitzarmenaren helburua, futbol jarduerak bultzatu eta babestea da Bermeoko udalerriko identitateagaz oso modu estuan lotuta dagoen kirola dalako.

Laugarrena: 2023ko apirilaren 21ean, Kirol Saileko teknikariak justifikatze memoria emon dau.

Bosgarrena: 2023ko apirilaren 25ean, Idazkaritzako teknikariak txosten juridikoa emon dau.

Seigarrena: 2023ko maiatzaren 11n, Kontuhartzaileak aldeko txostena emon dau.

Argudioak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000C8F6E00Y5G3U5O0X9R7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
23/05/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 23/05/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/05/2023
09:40:22

DOCUMENTO: 20230823150

Fecha: 23/05/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Lehenengoa: Bermeoko Udalak 2023ko aurrekontuetan Futbol Taldearen aldeko dirulaguntza nominatiboa jaso dau eta elkarte honegaz hitzarmena egiteko proposamena.

Bigarrena: finantzatuko diren gastuak formazioa, baliabide materialen hornikuntza eta giza baliabideak, federazioen kuotak, beharrezkoak diren kudeaketa gastuak, garraioak, elkarteko ohiko ekintzak, futbolaren difusioa eta sustapena egiteko jarduerak eta programak.

Hirugarrena: Gastuak beharrezko atxikipena dauka RC 2023/503.

Laugarrena: Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legearen 5. artikulua, Toki Errejimenaren Testu Bateratua onartzen dauan 781/1986 EDLaren 111. artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Adminitratibo Orokorra onartzen dauan 39/2015 Legearen 86. artikulua, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, bere 28.1 artikulua, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak bere 6. artikulua eta Sektore Publikoaren Errejimen Juridikoa arautzen dauan 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengokoak hartu dira kontutan.

Bosgarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legearen 21.1. artikulua f) eta s) ataletan jasotakoaren arabera, alkateari jagoko, baina 2022ko martxoaren 7ko 703. zenbakidun Alkatetzak Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Bermeoko Futbol Taldeagaz 2023. urteko hitzarmena sinatzea onartzea eta hitzarmenean jasotzen den 1go zatiaren ADOa egitea, hau da, %75a – 21.000 €.

BIGARRENA: Interesdunari erabagiaren barri emotea, hitzarmena sinatu daien.

HIRUGARRENA: Hitzarmen honen publizitatea Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzeko agindua emotea Kirol Sailari.

LAUGARRENA: Hitzarmen honen publizitatea Bermeoko Udalaren webgunean txertatzeko agindua emotea ATB sailari.

BOSGARRENA: Hurrengo O soko Bilkurean erabagi honen barri emotea.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000C8F6E00Y5G3U5O0X9R7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 23/05/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 23/05/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/05/2023 09:40:22

DOCUMENTO: 20230823150
Data: 23/05/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



7.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRIEMOTEA.

Ez da ezer adierazi.

8.- ESKARI ETA ITAUNAK.

Ez da eskaerarik ezta itaunik egin.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitatutako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

Orrri oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000C8F6E00Y5G3U5O0X9R7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
23/05/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 23/05/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/05/2023
09:40:22

DOCUMENTO: 20230823150

Datea: 23/05/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia